

Nafarroako erlijio tokiak, norenak?

(Who do the places of worship in Navarra belong to?)

KARRERA EGIALDE, Mikel

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Zuzenbide Zibila Saila
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia
mikelmari.karrera@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 19; 55-58]

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako jardunaldi honek helburutzat izan du agerian uztea Elizak bere ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzeko izan duen trataera berezia. Ezein jabetza bere ondasun higiezinak Erregistroan matrikula emateko ahalmena izan badu ere, Eliza Katolikoak bere herriko elizak ezin izan ditu erregistratu, hain zuzen ere higiezin horren jabetza-eskubidea duela zalantzarikoa izan baita. Hala eta guztiz ere, egun, hipoteka-erregelamenduaren arabera, horiek bere izenean jartzeko aukera du, elizari herri-kutsua kendu eta Elizaren jabetzakoa eginez.

Giltza-Hitzak: Jabetza-eskubidea. Jabetza Erregistroa. Finka inmatrikulaztea. Eliza katolikoa.

El objetivo de la jornada organizada por la Universidad Vasca de Verano ha sido hacer público el tratamiento especial que ha recibido la Iglesia a la hora de inscribir sus bienes inmuebles en el Registro de la Propiedad. Aunque cualquier propietario ha podido inscribir sus bienes inmuebles en el Registro, la Iglesia Católica no ha podido inscribir sus iglesias de los pueblos, ya que hay dudas en torno a su derecho de propiedad sobre esos inmuebles. Aun así, a día de hoy, según el reglamento hipotecario, tiene la posibilidad de ponerlas a su nombre, quitándoles su matiz popular y pasando a ser propiedad de la Iglesia.

Palabras Clave: Derecho de propiedad. Registro de la Propiedad. Inscripción de fincas. Iglesia Católica.

Zer objektif de la Journée organisée par les Cours d'Été de l'Université du Pays Basque était de faire connaître le traitement spécial accordé à l'Église en matière d'inscription des biens immobiliers au Registre de la Propriété. Alors que tout propriétaire peut faire inscrire ses biens immobiliers au Registre de la Propriété, l'Église Catholique n'a pas pu faire enregistrer les églises des villages, à cause de doutes sur la propriété des dits immeubles. Elle peut cependant aujourd'hui, conformément à la réglementation en vigueur et dépourvues de leur statut de propriété publique, les faire enregistrer au nom de l'Église, qui devient ainsi leur propriétaire légitime.

Mots-Clés : Droit de propriété. Registre de la Propriété. Inscription de biens immobiliers. Église Catholique.



Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) antolatuta, Nafarroako erlijio tokiei buruzko jardunaldia egin zen 2009ko martxoaren 26ean Iruñean, Nabarrerria kaleko Civivox etxean. Egitarauak azaltzen zuenez, badira zenbait urte Iruñeko Artzapezpikutzak hasi zela Nafarroako erlijio toki asko bere izenean jartzen Jabetza Erregistroan, ordu arte inoren izenean jarri gabe zeudenak hain zuzen ere, bereziki elizak eta baselizak. Erregistrarzte prozesu horri aurka egin eta herriaren ondarea babesteko, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma sortu da (www.plataforma-ekimena.org), hain zuzen ere herriak bere ekarpen eta ondasunekin egindako eraikinak izanik, horien gaineko jabetza-eskubidea bertako herritarrena dela argudiatu baitaiteke. Plataformak mozio bat bidali du Nafarroako udaletara, ondare horren defentsa eztabaidatu dadin, eta dagoeneko, udal askok bat egin dute ekimenarekin. Horren ondorioz, udaletan sortutako eztabaida politiko eta juridikoaz gain, azken aldian prentsan ere oihartzuna izan duen gaia da.

Jardunaldiaren helburua, eztabaida honetan sortu diren jarrerak ezagutu, aztertu eta hausnartzea izan da eta, hasteko, bi ikuspegi kontrajarriak agertu nahi izan ziren: batetik, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren iritzia eta, bestetik, Iruñeko Artzapezpikutzako edo Elizako kideen aburua. Jarrera horiek osatzeko, ikuspegi juridikotik zuzenbide zibila eta arlo historikotik arazoaren bilakaerak ematen dituen erreferentziak azaldu nahi izan dira.

Lehenik, Nafarroako Ondarearen Defentsarako plataformako kide den José María ESPARZAK “Nafarroako ondarea herriarena” izenburupeko hitzaldia eskaini zuen. Bere azalpenen arabera, Eliza katolikoak bere izenean jarri ditu Nafarroako eliza eta ermita gehienak eta, pribatizazio horri aurre egiteko, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma sortu da. Hauen esanetan, herriaren izerdiarekin egindako etxeak eta eraikinak, herritarrenak izan behar dute eta udal ondarearen defentsa egitea toki entitateen betebeharra dela uste dute, udalek beraien ondareak zaindu, babestu, berreskuratu eta hobetu behar dituztela; horregatik eskatu diete udal desberdinei beraiekin bat egin dezatela.

Horren ondotik, Elizako kide diren Iñaxio AZKOAGAK eta Miguel LARRAMBEBEREK izan zuten hitza; lehena Uitzu, Gorriti eta Lekunberriko apaiza, Euskal Pastoralzarren Sailekoa eta NUPen irakasle da; eta bigarrena, berriz, Uharte Arakilgo eta San Miguel Santutegiko apaiza eta izen bera daraman kofradiako apaiza da, *ISCR San Francisco Javieren* eta *CSET San Miguel*

*Arcángel*eko irakasle izateaz gain. Horien parte hartzearen izenburua hau izan zen: “Kristau herria, bere elizen jabe”. Beren iritziz, elizak kristauek egindakoak dira, gure aurrekoek eraiki baitzituzten bere kristau fedearen ondorioz. Nahiz eta beste eginkizun sozial batzuk ere bete, elizen helburua batez ere erlijiosoa izan da, baita gaur egun ere. Elizbarrutiek eta parrokiek, aspaldidanik nortasun juridiko propioa izan dute. Erakunde zibilak eta eklesiastikoak bereizi izan dira historian zehar, nahiz eta gehienetan harreman estua existitu elkarlanean. Zenbait kasutan tenpluen sorreran eta gestioan erakunde zibilek parte hartu izan badute ere, Elizaren erakundearen nortasuna deuseztatu gabe eta Elizaren autoritatea eta ardura ukatu gabe izan da.

Gero, Mikel KARRERAK hartu zuen hitza, “Jabetza Erregistroan finkak inmatrikulatzeko moduak” argitzeko. Finka inmatrikulatzeko, Jabetza Erregistroan hura lehen aldiz sartzea eta hari matrikula ematea da. Horretarako, finkari bere folioa irekiko zaio eta lehen idazpena inmatrikulatzeko idazpena izango da. Lehenengo idazpen hori, finka deskribatzeko eta jabetza-eskubidea inskribatzeko izango da. Azken batean, inskripzio horren bidez, lehen aldiz islatzen da finka Jabetza Erregistroan. Horretarako, legeak aurreikusten dituen bideetako bat erabili behar da, eta Elizari bide berezia eta zabala ematen zaio, gero azalduko denez.

Bukatzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Zuzenbidearen Historian irakasle den Roldán JIMENOK eman zituen azalpenak, “Nafarroako erlijio-eraikinen jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat” izenburupean. Nafarroako erlijio-eraikinen jabetzaren eztabaida argitzeko banakako ikerketa sakonak abiatu beharko lirakeke, eta, edozein kasutan, eraikinen tipologia (katedralak, parrokia-elizak, ermitak, komentuek, monasterioak, kofradien egoitzak) eta jabetzetan eragin duten prozesuak (berezko elizak parrokia bihurtzea, desamortizazio-prozesua) ezagutzea ezinbestekoa baita.

Gauzen gaineko jabetza-eskubidearen titularra ordenamendu juridikoaren arabera nor den zehaztu behar izaten da; gero, aurreko arazo hori konponduta izan edo ez, eta ondasuna higiezina bada, berau Jabetza Erregistroan inskribatzeko aukera aztertu daiteke. Baina, Nafarroako erlijio-tokien inguruan sortu den arazoak badu bere zergatia: Elizak, bere ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzeko, trataera berezia eta pribilegiozkoa izan du.

Abiapuntu moduan, erregela orokorraren arabera ezein ondasun higiezin inskriba daiteke Jabetza Erregistroan. Hala eta guztiz ere,

hainbat higiezin Erregistrotik kanpo utzi izan dira aipatze bidez: Estatuaren hainbat ondasun eta gurtza katolikorako erabiltzen diren tenpluak erregistratzea debekatzen da. Horren arrazoia honela ematen du legegileak:

(...) no hay necesidad de inscribir los bienes de **uso público general**, como las calles, los caminos, las riberas y otros, no porque estén fuera del comercio, sino porque **no están realmente apropiados**, ni constituyen el patrimonio exclusivo de ninguna persona o corporación, ni es indispensable que estén señalados con un número en el registro para que sea **notorio su estado civil**.

Hain zuzen ere, 1915ko Hipoteka Erregelamenduak adierazten duenez, horiek inskribatzeko aukera badago baldin eta jabetza-eskubidearen objektu izatera pasatzen badira, izaeraz edo berez ez baitira inork beregana ditzakeen ondasunak:

(...) si alguno de los bienes comprendido en el artículo anterior **cambiare de destino adquiriendo el carácter de propiedad privada**, se llevará a efecto su inscripción con arreglo a los artículos 21 y siguientes de este Reglamento.

Debeku hura 1867/1998 Errege Dekretuak kendu egiten du, eta elizak inskribatzeko aukera zabaltzen zaio eliza katolikoari, baldin eta inskribatu nahi duen eraikinaren gaineko jabetza-eskubidearen titularra dela frogatzen badu, noski. Alegia, Elizak bere ondasun guztiak inskribatzeko eskubidea du, baina hurrengo arazoa da horretarako zein bide erabili behar duen; eta hor dago arazoaren gakoa, jabetza-eskubidea frogatu beharrik ez baitzaio eskatzen bide horretan.

Kontua da Hipoteka Legeko 206. artikulua, Estatuaren ondasunak eta, era berean, Eliza Katolikoarenak inskribatzeko bide berezi bat aurreikusten duela:

(...) el Estado, la provincia, el municipio y las Corporaciones de derecho público o servicios organizados que forman parte de la estructura política de aquél y **las de la Iglesia Católica**, cuando carezcan del título escrito de dominio, podrán inscribir el de los bienes inmuebles que les pertenezcan mediante la oportuna certificación librada por el funcionario a cuyo cargo esté la administración de los mismos en la que se expresará el título de adquisición o el modo en que fueron adquiridos (...).

Ziurtagiri horri buruz, Erregelamenduak zera dio: **“tratándose de bienes de la Iglesia, las certificaciones serán expedidas por los Diocesanos respectivos”**. Hau da, Nafarroan

Artzapezpikuak ziurtagiria eman dezake ondasun higiezinaren gaineko jabetza-eskubidea berea duela adierazteko eta hori Jabetza Erregistroan finka inmatrikulatzeko erabili daiteke. Noski, gainerako partikularrek eta beste Elizek ez dute horrelako ahalmen eta aukerarik, Eliza katolikoak bakarrik.

Jabetza-titulurik ez izatetik, finka inmatrikulatzea da jomuga. Inmatrikulatzeko bide berezi horrek, dena den, Jabetza Erregistroan ondasunari matrikula jarri eta folioa irekitzea besterik ez du ekartzen. Dokumentuan jasotako eskubide-itxura onartzen da, baina horrek ez du esan nahi errealitate juridikoan hala denik. Horregatik, bi urtez sendotu gabeko behin-behineko egoera sorrarazten da, printzipioz. Beraz, legeak berak prebentzioz joketzen du inmatrikulatzeko bide horrekin eta bi urte iragan bitartean inskripzioak ez du eraginik izango hirugarrenentzat. Kontuan izan behar da hirugarrena babesten duen Hipoteka Legeko 34. artikulua, kostuz eskuratu duen pertsona bakarrik babesten duela eta transmitzeko ahalmenak zituen norbaitengandik eskuratu badu bakarrik. Baina, prebentzio horrek ez du bi urte horietan bakarrik irauten, harantzago baitoa. Presuntzioen babesa izan arren, errealitate juridikoa ezin du berez aldatu zerbait inskribatzeak hirugarrenen interesak jokoan sartzen ez diren bitartean.

Jabetza-eskubidearen benetako titularrak, noski, bere titulua alegatu eta frogatu behar du. Titulu hori, besterik agertu ezin denean, preskripzio eskuratzailerako edo usukapioa izan da normalean. Denbora dela medio jabetza-eskubidea eskuratzeko, elementu nagusia edukitza da; gauza edukita, gero, horren gaineko portaera aztertu behar da, bereziki erabilera. Lehenik, edukitzari dagokionez, higiezinak eliza katolikoaren esku egon eta horien edukitzaile izan dela nabaritzat jo daiteke. Beste kontu bat da, ordea, higiezinaren gaineko edukitza hori zergatik duen eta nola baliatu duen; azken batean, edukitzeko eskubideak zer adierazi dio jendeari gauza profitatzen den bitartean. Hori jakiteko, agerrarazten diren ahalmenak aztertu behar dira, jabetza-eskubidearen ahalmenak nork erabili dituen egiaztatu behar direlako. Zehazketa horretan, elementu anitz ikusi daitezke gauzarekin nork zer portaera izan duen erabakitzeke. Hasteko, eraiki beharreko higiezinaren gain erabakiak nork hartu dituen (proiektua) eta eraikina bera nola gauzatu den (dirua eta lana). Ondoren, higiezinaren aprobetxamendua nork zuzendu duen, bereziki ea eraikinaren kudeaketa egin izan duen patronaturik baden edo ez, eta fruitu zibilak (errentak) nork jaso dituen; aldi berean, jabeari dagozkion erabilerak burutzeko erabakiak zertarako hartu diren (herri-bilerak

egiteko, herriko dokumentazioa jasotzeko, jolas-toki izateko). Gauza orok bezala, erabileraren ondorioz sortutako ajeak konpontzeko ardura nork izan duen, hau da, gauza kontserbatzeko betebeharra nola burutu den. Gainera, bere kasuan, jabetzari dagozkion zergak ordaintzeko ardura nork hartu duen.

Elementu horiek guztiak kontuan izan beharraren ondorioz, noski, kasuak banan-banan aztertu behar dira ezinbestez. Baina, bada zuzenbideko printzipio orokor bat gogora ekarri beharrekoa eragiketa horietan: printzipioz, ezeinek ez ditu ordaintzen besteren gastuak. Hau da, inork ez du ezer ematen ezeren truk, bestelakorik frogatzen ez bada behintzat. Hain zuzen ere, dirua ematen denean eta lana jartzen denean, eragiketa horren kausa erabakigarria da: nork berea duen eskubidearen ahalmenak baliatuz egiten da, edo beste norbaiten aldeko doako eskuzabaltasun hutsagatik egin da.

Azken batean, norbaitek jabetza-eskubidea eskuratzeko betekizunak nola eta noiztik bete dituen zehaztea beste lan bat da eta, alor juridikoan beti gertatu ohi denez, kasuz kasu aztertu beharrekoa gainera.